

## ARRATEKO ZELAIKO KANTUAK

*Eguna: maitzak 25, zapatua /Día: 25 de mayo, sábado*

*Ordua: gaueko 10,30ak /Hora: 10,30 noche*

*Lekua /Lugar: Astelena Frontoia*

**Partehartzaileak / Participantes:** Fran Lasuen (Eguen banda) / Mariasun Angera /Luther / Kukka / Asier Serrano / Goruntz Korua /Narbaiza Bertsolarixa / Markos Untzeta /Jainaga eta Narbaiza trikitilarixak /Sostoa Korua /Sostoa Txiki Korua

**Aurkezleak / Presentadores:** Jesus Maria Gisasola "Trunboi" (Arrate Kulturalaren Presidentea);Maiden Aranberri (Eta Kitto -ko dinamizatzailea)

**Sarrerak salgai/venta de entradas anticipada ( 6 €)**

Klub Deportiboa, "Arrate" Kulturala, Sagarbitza taberna.

*Organizadores/ Antolatzailliak: Eibarko Klub Deportibua, Eibarko Udala*  
Babeslia: Gipuzkoako Foru Aldundia

## HELBURUAK:

Kantaldi hori Eibarko Udaleko Ego Ibarrek bere garaian kaleratu zuen “Eibar Kantuz Kantu” liburuan oinarritu dugu, Mikel Sangroniz eta Mireia Otzerinjauregik egindakoan. Hala ere kantaldiaren antolamendua eta aurrekontu osoa Eibarko Klub Deportiboan lepo dago, EUSKAL JAIAREN barruan sartu baitu ekitaldia. “Arrateko Zelaiko Kantuak” izen esanguratsua darama, eibartarrok “Arratetikuak” garelako; gure herriko kanturik zaharrenetarikoaren hasiera horixe bera delako.

Kantaldi horrekin nahi duguna hau da: Eibarko kantu zaharrak bizi araztea eta jendeari erakustea. Klub Deportiboak bere historian zehar beti erakutsi du kultur ekitaldietarako gogoia eta grina; bere izanean darama horrelako eginkizunak antolatzea. Une honetan, gure ustez, euskal kulturak begiak nolabaitean atzera bota behar ditu eta lehengo gauzak berreskuratu, eguneratu eta indartu: kantatzen dakien herria ez da sekula hilko, kantuetan islatzen den herriaren beraren oroimena eta izateko modua ez da inoz galduko. Horixe izan da kantaldi hori antolatzen eman ditugun azken lau hilabete hauetan finkatu eta beti begien bistan izan dugu helburu eta nahi nagusia.

## KANTALDIAREN ERAKETA

Klub Deportiboak 2.600 bazkide ditu eta horrek ere zerbait adierazten digu: gauzak antolatzeko orduan herriko jendea eta herriko jendearekin antolatu behar ditugula. Horrelaxe jokatu dugu kantaldi hau antolatzeko orduan ere: herriko kantari eta kantu-talde guztiei egin diegu dei, eta benetan, eskuzabaltasunez jokatu dute gurekin lanean jarduteko unean. Hala ere, musikan eta horrelako eginkizunetan aditua den norbait behar genuen eta koordinazio nagusia Fran Lasuen Gabilondo eibartarrak eraman du; Oskorriko kide eta gaur egun “Eguen Banda” zuzentzen duen musikariak.

Eratzerakoan adin guztiak hartu ditugu kontuan; kantari-mota guztiak; baita abesbatzak eta bertsolariak ere –trikitilariak ahazteke-. Bakoitzak bere moldea emango dio herriko abesti jakin bati eta modu askotako doinuak belarriratuko dira: rocka, klasikoa, jazza... Horrek berezitasun nabari eta nabarmen bat emango dio jaialdiari.

Hona hemen kantaldian parte hartuko dutenak

- Fran Lasuen (Eguen banda)
- Mariasun Angera
- Luther
- Kukka
- Asier Serrano
- Goruntz Korua
- Narbaiza Bertsolarixa
- Markos Untzeta
- Jainaga eta Narbaiza trikitilarixak
- Sostoa Korua
- Sostoa Txiki Korua

Kantaldi horretan badago beste zerbait aipatu beharrekoa: kantuekin batera horman botako ditugun irudi zaharrak, Eibarkoak, 120 inguru. Horrek aukera emango digu kantua girotzeko eta gure herria hobeto ezagutzeko. Bertan azalduko dira Eibarko Musika Banda zaharrak (La Marcial...), koadrilak, eraikinak... “Castrillo-Ortuoste Fondoa”, Ojanguren eta “Eibartarren Ahotan” bildumetakoak, denak Eibarko Udal Artxiboarenak.

Azkenik, kantaldiaren hurrenkera eta kantuak:

1. Jainaga eta Narbaiza trikitilariak: “Arrateko Zelaiko” koplak
2. Sostoa: “A Mutil” eta “Txalopin Txalo”
3. Kukka: “Andra Mari Erregina” eta “Behin joan nintzen merkatura”
4. Markos Untzeta: “Zenbat diren” eta “Kantu berri bat”
5. Lhuter:
6. Goruntz: “Suite eibartarra” eta “Goazen Arratera”
7. Juan Mari Narbaiza bertsolaria: “Patxikuren kantak” eta “Gora Bihotzak”
8. Mari Asun Angera: “Nere amak pentsatzen zuen” eta “Venid al pueblo de Eibar”
9. Asier Serrano: “Arragueta kalean” eta “Gerrako ibillerak”
10. Fran Lasuen & Eguen Banda: “Arduragabekuen aeroplanoa” eta “Plaentxiatarren Iriarena”
11. Jainaga eta Narbaiza trikitilariak: “Erromerixakoak”
12. Sostoa Txiki: “Agur Lagun maiteak” eta “Aska txikian”
13. Denak batera: “Eibarko Herria”

## OBJETIVOS DEL FESTIVAL:

El punto de partida del proyecto es el libro publicado por el Ayuntamiento de Eibar “Kantuz Kantu” elaborado por Mikel Sangroniz y Mireia Otzerinjauregi pero la organización y el presupuesto del mismo han sido asumidos como propios por el Club Deportivo de Eibar y forma parte de la “Euskal Jaia” de la presente edición. El nombre del festival “Arrateko Zelaiko Kantuak” tiene un significado especial por dos razones: la primera, la de que todos los eibarreses procedemos de Arrate –no de Paris-; y la segunda, porque las dos primeras palabras nos remiten a una de las coplas dedicadas a la Virgen de Arrate más antiguas de Eibar.

El festival tiene como objetivo principal el dar a conocer las canciones eibarresas y difundirlas entre la gente. Desde ese punto de vista, con la citada actividad el Club Deportivo de Eibar sigue siendo fiel a su propia historia; es un club que desde su fundación –1924- ha mostrado un interés especial hacia la cultura y siempre se ha caracterizado por organizar actividades de claro contenido cultural. En el momento actual, hace falta volver la vista atrás para saber de dónde venimos; recuperar nuestra propia historia; actualizarla y reforzarla. En el caso presente la frase de “pueblo que canta no morirá” cobra todo su sentido: las canciones que se cantarán en el Astelena eibarrés reflejan toda la esencia y la idiosincrasia del pueblo de Eibar, sus vivencias, sus inquietudes, su humor. Durante los últimos cuatro meses en los que ha desarrollado el proyecto, ese ha sido el objetivo del Club Deportivo de Eibar.

## ORGANIZACIÓN DEL FESTIVAL

El Club Deportivo tiene 2.600 socios; una cifra que a pesar de su frialdad refleja la base humana en la que el Club se sustenta. Una cifra que, obviamente, por coherencia y en consonancia con la propia trayectoria del Club, obliga a trabajar con la gente de Eibar. Ese ha sido también uno de los puntales del acto: el llamamiento se ha extendido a todos los cantantes y grupos musicales de Eibar y la respuesta ha sido inmejorable, generosa desde todos los puntos de vista. A pesar de ello la empresa no era fácil: muchas de las canciones no quedan más que en la memoria de los mayores y en la actualidad no se cantan con la dificultad que ello conlleva desde el punto de vista del montaje musical. Ha sido el músico eibarrés Fran Lasuen quien ha coordinado todo el apartado musical desde el inicio hasta el fin y para el Club Deportivo, a la hora de organizar el Festival, ha sido la pieza clave.

Los que intervendrán en el festival abarcan todas las edades, diferentes generaciones de músicos; unos profesionales; otros aficionados, pero todos eibarreses. No sólo eso: también estarán presentes estilos musicales absolutamente diferentes pues cada cantante, el bertsolari, hará su propia interpretación del tema. En el Astelena retumbarán sonidos que irán desde la bossa hasta el rock, desde el clasicismo hasta las corrientes más modernas... Esa es una de las características más definitorias del festival

He aquí los cantantes, grupos, bertsolaris y trikitilaris que actuarán:

- Fran Lasuen (Eguen banda)
- Mariasun Angera
- Luther
- Kukka
- Asier Serrano
- Goruntz Korua
- Narbaiza Bertsolarixa
- Markos Untzeta
- Jainaga eta Narbaiza trikitilarixak
- Sostoa Korua
- Sostoa Txiki Korua

Hay que recalcar que la música estará acompañada de una proyección de fotografías antiguas que recogeran la primera parte del s. XX eibarrés, la parte musical y la vida musical de Eibar, documentos procedentes del Archivo Municipal Eibarrés y concretamente de los fondos “Castrillo-Ortuoste Fondo”, Ojanguren y “Eibartarren Ahotan”.

Por último he aquí el orden de intervención y las canciones:

1. Jainaga eta Narbaiza trikitilariak: las coplas de “Arrateko Zelaiko”
2. Sostoa: “A Mutil” eta “Txalopin Txalo”
3. Kukka: “Andra Mari Erregina” eta “Behin joan nintzen merkatura”
4. Markos Untzeta: “Zenbat diren” eta “Kantu berri bat”
5. Lhuter:
6. Goruntz: “Suite eibartarra” eta “Goazen Arratera”
7. Juan Mari Narbaiza bertsolaria: “Patxikuren kantak” eta “Gora Bihotzak”
8. Mari Asun Angera: “Nere amak pentsatzen zuen” eta “Venid al pueblo de Eibar”
9. Asier Serrano: “Arragueta kalean” eta “Gerrako ibillerak”
10. Fran Lasuen & Eguen Banda: “Arduragabekuen aeroplanoa” eta “Plaentxiatarren Iriarena”
11. Jainaga eta Narbaiza trikitilariak: “Erromerixakoak”
12. Sostoa Txiki: “Agur Lagun maiteak” eta “Aska txikian”
13. Para finalizar, todos juntos: “Eibarko Herria”

